

INTERNET ERABILTZEAREN ARRISKUAK

Familia agurgarria:

“Urretxuko eta Zumarragako nerabeentzako esku-hartze komunitarioa osasun arloan Programak”, J.M.IPARRAGIRRE BHI zentroak parte hartzen duenak, berriro lanari ekin dio udako geldialdia eta gero. Datorren urriaren 27an, “Internet erabiltzearen arriskuei” buruzko hitzaldia egingo da Zelai- Aritzi ZINEAN, 18:30tan, eta bertara gonbidatzen zaitugu. Horrekin lotuta, ikasturte honetan zehar zentru honetako ikasleek eurei egokitutako saioak jasoko dituzte.

Hitzaldi hori Ertzaintzako agente aditu batek emango du, Informazio Teknologietako Delituen Atal Nagusia (SCDTI) -ri adskribatua dagoenak, hain zuzen ere. Gainera, ikastetxetako saioetaz ere, bera arduratuko da.

Gurasook gure seme-alabei lagundu eta erraztu nahi diegu, osasun ohitura egokiak lor ditzaten ondo bizitzeko. Internet eta sare sozialak gure bizitzako gauza arrunt bilakatu dira eta askotan ez gara ohartzen horien erabilerak dakartzan arriskuez.

Internet eta sare sozialak modu seguruan erabitzen dituzte gure seme-alabek? Ezagutzen ditugu arriskuak? Zein urrats eman behar ditugu arrisku horiek ekiditeko? Gurasoek nola antzeman dezakegu arazo baten aurrean gaudela?

Hitzaldiko GAIA: INTERNET ERABILTZEAREN ARRISKUAK

- Sarera konektatzen garenean gure seme-alabek eta guk geuk jasaten ditugun arriskuak
- Arazo horiek ekiditeko dauden moduak
- Adinez txikiak direnek interneten egin ditzaketan delituen lege-ikuspegia

EGUNA: urriaren 27a

ORDUA: 18:30tan

LEKUA: Zelai-Aritzi Zineman

Bertan ikusiko garelakoan, adeitasunez agur.

Urretxun, 2015eko urriaren 20an

Nerabeentzako Komunitate Esku-hartze Taldea

